Beasaingo udala
gogo batez
Beasaingo udal aldizkaria
beasain
62 egunez egun
2015eko urtarrila

# Urtarrilean herritarrek hartuko dute hitza Plan Orokorraren diseinuan

Etorkizunean nolako Beasain izatea nahi den hausnartzen eta zehazten ari da Beasaingo Udala, herritarrekin, elkarteekin, eragileekin eta ikasleekin; dagoeneko 547 lagunek hartu dute parte.

Beasaingo Udalak martxan jarri duen Beasaingo Plan Orokorra diseinatzeko prozesua «arrakastatsu» hasi da. Abenduan, herriko ikastetxeetako 8-17 urteko ikasleekin, herriko elkarteetako ordezkariekin, dagoeneko martxan dauden foroetako kideekin eta udal langileekin partekatu dute prozesua. Lehenengo fase horretan, dagoeneko 547 lagunek hartu dute parte, biharko Beasainen inguruan hausnartu eta ekarpenak egiteko.

## Urtarrilean auzoka eta gaika

Urtarrilean herritarren txanda izango da. Urtarrilaren 12tik aurrera, auzoka eta gaika herritarrek iritzia eman eta ekarpenak egiteko aukera izango dute, prozesua aberasteko.



Dagoeneko, herriko elkarte desberdinek parte hartu dute Gaur Biharko prozesuan.

El Ayuntamiento de Beasain sigue con el proceso de diseñar el Plan General de Beasain. En diciembre, participó en el proceso el alumnado de entre 8-17 años, representantes de asociaciones y de los foros que ya están en marcha, y las personas trabajadoras municipales.

El Ayuntamiento valora muy positivamente el proceso, ya que hasta ahora han participado 547 personas.

En enero será el turno de la ciudadanía. Se realizarán reuniones por barrios y por temas específicos, para recavar opiniones y aportaciones.

## > Bilerak auzoka - reuniones por barrios

Bilera guztiak 18:30ean izango dira.

**> Urtarrilak 12, astelehena.** Landa eremua. Barrios rurales. Arriarango Intxaurpe elkartean.

**> Urtarrilak 13, asteartea.** Igartza auzoa, Zapatari kalera arte. Barrio Igartza. Igartzako jauregian.

**> Urtarrilak 14, asteazkena.** Erdigunea. Centro. Zapatari-Erauskin. Udaletxeko batzar aretoan.

**> Urtarrilak 15, osteguna.** Erdigunea. Centro. Erauskin plaza - Jose Migel Iturriotz. Udaletxeko batzar aretoan.

**> Urtarrilak 19, astelehena.** Ezkiaga auzoa. Murumendi ikastetxean.

## > Gaikako bilerak - reuniones por temas

Bilerak Udaletxeko batzar aretoan, 18:30ean.

**> Urtarrilak 20, asteartea.** Ingurumena. Medioambiente.

**> Urtarrilak 21, asteazkena.** Etxebizitza. Vivienda.

**> Urtarrilak 26, astelehena.** Mugikortasuna. Movilidad.

**> Urtarrilak 27, asteartea.** Ekipamenduak eta espazio publikoa. Equipamientos y espacio público.

**> Urtarrilak 28, asteazkena.** Garapen ekonomikoa. Desarrollo económico.

Bileretan haurtzaindegi zerbitzua egongo da. Aurrez izena eman behar da: 943 028 108 - *komunikazioa@beasain.net*

# Osasun foroa: gazteen artean ohitura osasuntsuak sustatuz

Beasaingo osasun zentroa ohitura osasuntsuen ikerketa proiektua garatzen ari zela, gizarteko eragile desberdinekin lankidetzan eta elkarlanean aritzeko beharra ikusi zuten. Behar horretatik lankidetza foroa sortu dute osasun zentroak, Beasaingo ikastetxeek, Udal ordezkariek eta teknikariek, kale hezitzaileek eta Gazteleku-ko hezitzaileek. Nerabeei eta gazteei arreta jarriko diete ohitura osasuntsuak sustatzeko, eta horretarako estrategia komunak eztabaidatu eta zehaztuko dituzte foroan. Izan ere, prebentzio ekintzak eta osasunaren garrantzia sustatzeko ekintzak egitea beharrezkoak dira osasun foroarentzat.

13-16 urte bitarteko ikasleen artean informazio bilketa egin du foroak, ikasleen txerto aldia baliatuz. Bi inkesta egin zaizkie: batetik, bizitza osasuntsuaren (elikadura, jarduera fisikoa eta tabakoa) inguruko galdeketa bat; eta bestetik, 16 urtekoei, alkoholaren, beste drogen, sexualitatearen eta sare sozialei buruzko galdeketa egin zaie. Datu bilketaz gain, formazio tailerrak ere eman zaizkie irakasleei eta ikasleei.



A raíz de un proyecto de investigación sobre intervención en hábitos saludables, en el que participaba el centro de salud de Beasain, se valoró la necesidad de buscar la colaboración y participación de otros agentes sociales y comunitarios. Con ese objetivo se constituyó un foro colaborativo en el que participan, salud pública, centros de enseñanza de Beasain, representantes del Ayuntamiento, trabajadores de calle, representantes de Gazteleku y profesionales sanitarios del centro de salud de Beasain.

Dentro de los diferentes objetivos uno de ellos ha sido disponer de información sobre los hábitos de la juventud, aprovechando la campaña de vacunación escolar a los 13 y 16 años. Además, se han organizado diferentes talleres de formación para el profresorado y para el alumnado.

## •• Inkesten emaitzak

13-16 urte bitarteko gazteei ohitura osasuntsuen inguruan egindako inkesten ondorioak hauek dira:

**Gomendatutako jarduera fisikoa:** Mutilek neskek baino jarduera fisiko gehiago egiten dute.
**Barazkiak eta fruta:** Mutilek neskek baino barazki eta fruta gutxiago jaten dute egunero.
**Alkohola:** Garaiz hasten dira alkohokola probatzen neskak zein mutilak; arlo horretan ez dago desberdintasunik.

Los resultados obtenidos entre el alumnado de entre 13 y 16 años:

**Actividad física recomendada:** Los chicos son más proclives en cumplir las recomendaciones sobre actividad física.
**Verduras y fruta:** Los chicos, con respecto a las chicas comen menos verdura y fruta a diario.
**Alcohol:** Su consumo se inicia en edades tempranas y prácticamente no hay diferencias entre ambos sexos.

## > alkohola eta osasuna

Alkohola askotan ospakizunekin eta familia eta lagun giroko momentu goxoekin lotzen da baina ez da ahaztu behar, osasunarentzat ondorioak izan ditzakeela, batez ere kontsumoa gehiegizkoa denean. Hainbat gomendio eman dituzte osasun zentrotik:

> Era erregularrean edanez gero, saiatu egunero ez edaten.
> Noizbehinka edanez gero, saiatu 5 (emakumezkoek) edo 6 (gizonezkoek) ardo kopa, garagardo, txupito, edo 3 koñak, whisky, vermut edo konbinatu baino gehiago ez edaten.
> Alkohola gehiegi kontsumitzeak arazo fisiko ugari sor ditzake: hipertentsioa, dementzia, depresioa, zirrosia, minbizia...

### Ahalik eta gutxien

> Osasunaren Mundu Erakundearen aholkua: zenbat eta alkohol gutxiago, hobe.

> Consejo de la OMS: alcohol, cuanto menos mejor.

## > el alcohol y la salud

El consumo de alcohol se asocia muy a menudo con celebraciones. Pero es bueno recordar que también puede comportar riesgos para la salud, en especial si el consumo es excesivo.

> Si bebe de forma regular, procure que no sea a diario. Si bebe sólo en algunas ocasiones, no exceda las 6 (en caso de hombres) y de 5 (en caso de mujeres) copas de vino, cerveza, chupito o de 3 copas de whisky, vermut o combinados.
> El exceso de alcohol favorece la aparición de hipertensión, demencia, depresión o el cáncer.

## Nafarroako Etorbideko obrak urtarrilaren 12an hasiko dira

Urte berriarekin batera, urtarrilaren 12an hasiko dira Nafarroa Etorbideko eta Barrendain plazako lanak. Bi hilabete inguru iraungo dute lanek eta Erauskin plaza aldetik hasiko da lanen lehenengo fasea. Kale Nagusiaren ezaugarri berdinak izango ditu Barrendain plazarainoko Nafarroa Etorbideko zatiak ere: oinezkoek izango dute lehentasuna, eta baimendutako eta karga deskargarako autoak bakarrik pasatu ahal izango dira bertatik.

Barrendain plazari dagokionez, biribilgunea txikitu eta asfalto inpresoa jarriko dute.

El 12 de enero comenzarán las obras de peatonalización de Nafarroa Etorbidea (junto a las Pérgolas) y de la Plaza Barrendain. En Nafarroa Etorbidea se nivelarán la carretera y la acera, siguiendo con la estructura y filosofía de la Kale Nagusia. También se remodelará la rotonda de Barrendain.

## Zergak eta hobaria

2015eko azoka zergari dagokion lehen hiru hileko zerga ordaindu beharko da otsailaren 28 baino lehen. Egoiliarrentzako aparkalekuari dagokion zerga, berriz, urtarrilaren 2tik otsailaren 28ra ordaindu behar da. Ondasun Higiezinen Gaineko Zergan hobaria izango dute familia ugariek, eta horretarako, urtarrilaren 31 baino lehen aurkeztu behar dira eskariak Udaletxeko Harrera Bulegoan.

En las próximas semanas, antes del 28 de febrero, se deberá pagar la tasa del primer trimestre del Mercado y el tributo del aparcamiento de residentes.

Por su parte, Las familias numerosas tendrán que presentar sus peticiones para las bonificaciones en el Impuesto sobre bienes Inmuebles.

## Igartzako Kultur mahaiak hausnarketari ekingo dio



Urtebete baino gehiago da Igartzako Kultur Mahaia lanean ari dela. Behin eta berriz, Beasaingo eta eskualdeko kulturaren arloko hausnarketa egiteko beharra azpimarratu izan da bertan eta behar horri erantzuna eman nahian, Igartzako Kultur Mahaiak hausnarketa prozesuari ekingo dio. Mondragon Unibertsitateko Huheziko Euskal Kulturgintzaren Transmisioa aditu tituluaren zuzendariak, Julen Arexolaleibak, gidatuko du hausnarketa. Urtarrilaren 14an egingo dute hurrengo bilera, 18:30ean Igartzan. Udaletxetik jakinarazi dutenez, Igartzako Kultur Mahaiaren bilera guztiak bezala, irekia izango da hausnarketa prozesua ere. Bestalde, Beasainek herri titulua berreskuratu zueneko 400. urteurrena ospatzeko ekitaldiak antolatzen ere ari da Igartzako Kultur Mahaia.

La Mesa de Cultura de Igartza lleva más de un año trabajando, y ahora realizará un proceso de reflexión sobre la cultura, con la ayuda del profesor Julen Arexolaleiba de la Universidad de Mondragon. La primera reunión será el 14 de enero, a las 18:30 en Igartza. Como todas las reuniones de la Mesa de Cultura, las reuniones serán abiertas.

## Beasain.eus

Abenduaren 3az geroztik, Beasaingo Udalaren webgunea *www.beasain.eus* da. Kiroldegiarena *antzizar.eus* eta Igartzarena *igartza.eus*.

Desde 3 de diciembre las páginas web del Ayuntamiento, del Polideportivo y de Igartza son:  beasain.eus, antzizar.eus e igartza.eus.

## Matrikula epeak zabalik / matricula abierta

**Berritsu ludotekan (9-12 urte bitartean)**
Matrikulazioa zabalik: urtarriletik ekainera, 31,5 euro.
Astelehenetik ostiralera, 18:30etik 20:00etara.
Urtarrilean ekintza irekiak 9-12 urte bitartekoentzat, bi astean behin, larunbat arratsaldeetan, 16:30etik 19:30era, dohainik.

**En la ludoteca Berritsu (entre 9-12 años)**
Matrícula: De enero a junio, 31,5 euros.
De lunes a viernes, de 18:30 a 20:00.
En enero actividades abiertas y gratuitas, los sábados por la tarde de 16:30 a 19:30 (cada dos semanas)

**Udal Euskaltegian**
Urtarrilaren 12tik 23ra
Euskara ikasi, alfabetatu edo Hizkuntza Eskakizunetako azterketak, HABEkoak edo EGA azterketa prestatzeko ikastaroak, Mintzalaguna.

**En el Euskaltegi Municipal**
Del 12 al 23 de enero.
Cursos de euskaldunización  o alfabetización, o para preparar los exámenes de los distintos perfiles lingüísticos, de HABE o EGA, y Mintzalaguna.

943 028 100 - *euskaltegia@beasain.net*

urtarrila

beasain egunez egun

> Argitaratzailea: **Beasaingo Udala**
> Helbidea: **Loinazko San Martin plaza**
> Posta elektronikoa: **udala@beasain.net**
> Telefonoa: **943-02 80 50**
> Webgunea: **www.beasain.org**
> Diseinua: **Bidera Zerbitzuak**
> Lege gordailua: **SS1284-2008**

# > Iritziak Plan orokorra diseinatzeko prozesuan parte hartzen ari zara. Zein iritzi duzu prozesuaz?

## Karmele Arraiza (Murumendi ikastetxea)



Ikasleriari herrian ditugun azpiegiturei buruz hausnarketa egiteko aukera ematea oso hezigarria bihurtzen da. Horrela azpiegitura horiek, geroz eta gehiago, beraienak direla sentitzen joaten dira, eta une berean haienganako errespetua eta erabilera egokia bultzatzen da.

Eskolan dugun metodologiarekin bat datoz honelako lan proposamenak. Lanerako dinamika oso egokia izan da eta umeen erantzuna inplikazio altukoa izan da eta gogotsu aritu dira. Gaiari jarraipena ematea komeni da.

## Ekaitz Goikoetxea (Kultur Mahaia)



Herritar eta eragile guztien iritziak aintzat hartzen dituen prozesu guztiak dira interesgarri eta beharrezko. Kulturak eta euskarak herriaren egunerokoan eta etorkizuneko plangintzetan ezinbesteko langai eta erdigune izan behar dutela uste dut; hamabostaldiez harago, egunerokoan jorratu eta goxatu beharreko bi eremu nagusietakoak. Eta horretarako sinestu egin behar da, eta baliabideak eman eta herrian ditugun adierazpide ezberdinetako sortzaileak azaleratu, aukerak eman, herritik herrirako ekimenetan sakondu... Pausoak ematen ari gara,baina uste dut erakundeek areago lagundu behar luketela potentzial horri bide ematen.Bestetik, umeak euskara, kulturara, sormenera, partehartzera, txikitxikitatik erakartzea eta hezitzea ezinbestekoa denez, ezinbestekoa iruditzen zait ikastetxeetan, eta batez ere ikastetxeekin, gai eta eremu hauei begira egiten denaz bestelako lan bat egitea. Igartzako Kultur Mahaira zergatik ez dira herriko ikastetxe guztietako ordezkariak joaten? Ume-guraso-irakasleon elkargune eta etxearekin batera heziketaren oinarri direnez, ikastetxeak ezinbesteko dira herri baten egunerokoongizatean. Benjamin Pradok ondo dioen bezala, ikusteko sinetsi egin behar da, gaur biharko, baina oraindik hasita, gaurkoak biharko utzi gabe.

## Itziar Jimenez (Aspace)



A nosotros nos ha parecido muy positivo el hecho de que el Ayuntamiento nos tenga en cuenta a la hora de elaborar el Plan general, ya que afecta a cuestiones que incumben a toda la ciudadanía del municipio.

Nosotros podemos aportar otro punto de vista, el de las personas con movilidad reducida y con necesidades especiales, y temas como el de la adaptación de los parques infantiles para que nuestros niños y niñas puedan disfrutarlos, por ejemplo, entre otras muchas cuestiones. Pero en principio la actitud del Ayuntamiento nos parece muy dispuesta a escuchar a todos, luego la concreción... ya veremos pero por algo se empieza.

## Ana Uranga (Ezkiaga Auzo Elkartea)



El proceso nos parece bueno. En los tiempos que corren, fomentar y brindar un espacio para la participación ciudadana es fundamental.

Se debe escuchar y respetar aquello que la mayoría de los vecinos opinen. En un principio, no fue así pero lo que cuenta es que se haya reconducido la situación, lo cual favorece el camino para una buena colaboración.

Como Asociación solo pretendemos ser la voz de los vecinos de La Portería. En estos momentos, la necesidad es mejorar la accesibilidad y el estado de las calles Arantzazu y Mateo Mujika.

Asimismo, existe preocupación entre las personas del barrio con el devenir de Olaran. El recinto está abierto y el edificio en muy mal estado, lo cual exige una pronta acción para evitar posibles riesgos.